



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko  
ikergunea

---

# **GAZTEAK EUSKARAREN ESZENATOKIAN: ERABILERAREN AUZIA**

---

Jone M. Hernández García. EHUko Gizarte Antropologia  
Olatz Altuna Zumeta. Soziolinguistika Klusterra

2020ko urriaren 20a, Eskoriatza.

## **Sustatzaileak**

- Soziolinguistika Klusterra
- Euskal Herriko Unibertsitatea

## **Babesleak**

- Amorebieta-Etxanoko Udala
- Gernikako Udala
- Pasaiako Udala
- Zumaiako Udala
- Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Udari Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA)

## **Proiektu-taldea**

**Zuzendaria:** Jone M. Hernández García

**Ikerlariak:** Ainara Santamaria Barinagarrementeria, Iñigo Beitia Zabala eta Josu Ozaita Azpiroz

**Koordinatzailea:** Olatz Altuna Zumeta

## Ikerketaren kokapena

- **Aurrekariak:** Erabileraren GPSa, D ereduko kirola, ARRUE proiektua...
- 2018an **abiatutako** ikerketa-ildoaren jarraipena.
- Gazteen erabileraren azterketa **tipologia jakineko herrietan.**

## Ikerketaren ezaugarriak

**Helburua:** gazteek euskararekin duten lotura eta harremana aztertzea.

**Metodologikoki bide berri bat** hiru ardatzetan oinarrituta:

- Hizkuntza-ideologiak
- Hizkuntza-praktikak
- Hizkuntza-bizipenak

## Landa-lana

- **Lau herrietan:** Gernika, Zornotza, Zumaia eta Pasaia (Donibane) Aipamenak eta alderaketak beraien artean.
- Datuak jasotzeko “**tipularen estrategia**”.
- **Teknikak:** behaketak, elkarrizketak (helduekin), ibilbideak (gazteekin), talde-elkarrizketak (gazteekin) eta egunorokoak (gazteek).
- Informazio-emaileak lortzeko **zailtasunak**.

## HIZKUNTZA-IDEOLOGIA

- Hizkuntzari buruzko **diskurtso ahula**: berreskurapenaren ideologiarik ez.
- Hizkuntza-politika eta -plangintza **ezezagunak** dira.
- **Aurreiritziak** nagusitzen dira.
  - Belaunaldi gazteagoak okerrago datoz
  - Administrazio publikoan zailtasunak daude euskaraz ondo artatua izateko
  - Hizkuntza ohiturak aldatzea oso-oso zaila da
  - .....

## HIZKUNTZA-IDEOLOGIA

- Hizkuntza-egoerak **kudeatzen trebeak** dira, nahiz “tentsioei” aurre egiteko **baliabide eta kultura eskasak** izan.
- Hizkuntza-ideologia nagusiki **eskolatik** jaso dute.
- **Itxurakeriarekiko sentsibilitate** handia dute.

## HIZKUNTZA-PRAKTIKAK

- **Egoera anitz**, norberak ahal duen modura kudeatzen dituenak. Tentsio uneak azkar somatzen dituzte.
- Familiaren **mitoa erori** da. Adinkideen arteko harremanek garrantzi handia dute: bestelako familiak osatzen dituzte.
- **Unibertsitatea** **une/gune** **garrantzitsua**: hizkuntzak protagonismoa hartzen du harremanetan. Batzuei kontzientzia pizten zaie. Mudarako gunea da unibertsitatea.
- **Gazte kulturak eta euskarak bat** ez badute egiten, erabileran eragiteko aukerak mugatuak dira.



## HIZKUNTZA-BIZIPENAK

- Haurtzarotik nerabezaro/gaztarora **jauzia** hizkuntza-plangintzan:

Haurren kulturaren euskararen “**saturazioa**”

Gazteen kulturaren euskararen **desagerpena**

- Euskararen zabalpenak **homogeneizazio faltsua** dakar.

## HIZKUNTZA-BIZIPENAK

### Hiru testigantza mota (agian, hiru gazte-profil):

1. Euskararekin **lotura sendoa/intimoa**: Pertsona, hizkuntza eta identitatea bat eginda.
1. Euskara distantzia batekin, **aldizkako** (egoera eta gunearen arabera): Hizkuntza «gu» zabalago baten parte da.
1. Euskara **harremanen/arau sozialen baitan**: Erabiliko dute egoerek/harremanek/arauek eskatzen badute. Euskara nekeza egiten zaie.

## AMAITZEKO, GOGOETA BATZUK

- Hizkuntza-jokaeraren **naturalizazioa**:
  - Familia euskaldunetan → euskaraz // Gazteen artean → gaztelaniaz
  - Hizkuntz egoera/errealitatea naturalizatzeko joera dago.
  - Naturala dena mugiezina da
  - Naturalizazioak inertzia indartzen du.
  - Gizarteak egindako lana ikusteaz geratzen da.
  - Aurreiritziak → estereotipoak → logika bitarra

## AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK

- Gizarte aldaketek euskarak dituen **hutsuneak agerian** utzi dituzte.
- Euskararen irudi homogeneousak hainbat **arrakala ezkututzen** ditu.
- Gazteek euskara eskola eta familiaren identifikatzen dute nagusiki, eta hauek, gazteen unibertsoetik kanpo geratzen dira.
- Euskarak **gizarte egitura zabala behar** du erabilera areagotzeko.

Eskerrik asko.

*2020ko urriaren 28a, Eskoriatza.*